

ZERBITZU KARTA  
**Forem Navarra**



**forem**  
navarra

ZERBITZU KARTA  
**Aurkezpena**

## Forem Navarra

---

Formación y Empleo Navarra Fundazioa, FOREM-Navarra, 1998ko apirilean eratu zen. Irabazi asmorik gabeko gizarte erakunde bat gara, Nafarroako Langile Komisioak bultzatua eta Estatu Forem sarearen parte, naiz eta, estatutuak ezartzen duten arabera, erakunde bakoitzak nortasun juridiko propioa duen.

Fundazioaren ideia sortzaileak formakuntza eta lanbide-orientazioa pertsonaren bizitza osoan zehar osoko prozesu bat bezala ulertzen du, zeinak norberaren garapena eta garapen profesionala erreztuko duen.

Ikuspegi hau abiapuntu izanik eratu zen FOREM-Navarra: pertsonen eta euren erakundearen garapena eta lanbiderako kualifikazioak hobetzeko baliozko ezagutza sortu eta helarazteko. Hartara, hau da gure eginkuzuna:

- Emakumezko eta gizonezko langileei norberaren eta lanbidearen biografia eraikitzen lagundu, gaitasunen hobekuntza elkarlanean egin, ondoan joan aukera berriak eta bizi-hobekuntzak bilatzen. Pertsonaren duintasuna defendatu, ezagutza oinarri sendo batez jantziz, haren askatasunean, ahalduntzearen ugalketan esku hartzea esan nahi du, alegia, mundu hobeko bat, demokratikoago bat eraikitzea, berdintasunezkoagoa den eina.
- Enpresa eta erakundearen lehiakortasunera lagundu, enpresaren beharrei egokitutako neurriko prestakuntzaren bidez eta, orokorrean, emakumezko zein gizonezko langileen formakuntzaren bidez; postuari egokitutako gaitasun tekniko eta zeharkakoetan oinarritutako langileen aukeraketa prozesuak burutuz, lan harremanik gabeko praktiketan parte-hartuz, etab...  
Ziur gaude, krisiari irtenbidea eman eta produkzio eredu bidezkoago baterantz joateko modu bakarra ezagutza, kalitatea, parte hartzea eta berrikuntza oinarritutako eredu sozial jasangarriago bategatik apostu egitea dela.

Beste batzuen artean, hauek dira gure sortze-helburuak:

- Langileen Lanbide eta Gizarte Heziketa gaietan ikasketa eta ikerketa sustatu.
- Langileen formakuntza eta kualifikazioen beharrak ezagutzera lagundu, gizarte eskakizunak eta eskualde garapena, garapen teknologikoa zein ekonomikoaren arabera.
- Lan baldintzen hobekuntza lortzera lagundu, langileen formakuntza jarraian zein enplegurako politika aktiboetan esku hartuz.
- Fundazioak zehaztutako moduan eta mailatan parte hartu, oinarritzko formakuntza eta formakuntza jarraieko jarduerak emanez.
- Birlanmerkaturatze behar bereziak dituzten langabetuen formakuntzari lehentasunezko arreta eskaini, alegia, lehenengo lanean hasteke dauden gazteak, birlanmerkaturatzen diren emakumezkoak, iraupen luzeko langabetuak, etab...

## Xedea

Nafarroako emakumezko zein gizonezko langileen lan merkaturatze gaitasuna eta kualifikazioa igo.

## Ikuspegia

Nafarroan Enplegu eta Formakuntza erreferentziatzeko gune, eta enplegu politika aktiboaren tresna erginkorra izan.

## Balioak

Gizarte erantzukizuna. Kalitatea. Gardentasuna. Jasangarritasuna. Genero ekitatea. Lan egokiarekin konprometua. Pertsona, enpresa eta administrazioarekin konprometua.

ZERBITZU KARTA

**Langabezian eta  
lanean dauden  
langileei  
zuzenduriko  
zerbitzuak**

# 1. Informazioa eta lanbide aholkularitza

## Zerbitzuaren deskribapena

---

**Besteren konturako enpleguaren bilaketan banakako laguntza prozesua.**

Banakako egoeraren informazioa eta diagnosia biltzen du, profil profesionalaren lanketa eta epe motzeko zein luzeko helburuen analisia. Behar profesional eta formakuntza beharren diagnosi hau habiapuntu izanik, eta lan bilaketarako gaitasunak zein gaitasun tekniko eta zeharkakoak garatu ahal izateko, orientazio prozesuak jarduera ibilbide edo egituratutako programa baten hasiera izan dezake, erabiltzailea bere helburu profesionalera gerturatu eta lan merkaturatzeko gaitasunak nabarmenki hobetzeko. Programa honek akordio edo konpromezu baten gauzatzea darama berekin eta honako jarduerak barne hartu ditzake:

- Lan merkatuari buruz, okupazioari buruz, intereseko enpresa eta sektoreak, formakuntza eta enplegu baliabideei buruzko informazioa.
- Formakuntza ibilbidearen diseinua.
- Kualifikazio bat eskuratzeko ibilbidearen diseinua.
- Zeharkako gaitasunen garapenerako jarduerak: pertsonen-arte komunikazioa, gaitasun digitala, talde lana, ekimena, etab.
- Lan bilaketarako eta aukeraketa prozesuak prestatzeko jarduerak.
- Lan bilaketarako baliabideak eta metodoak landu edo aztertzeko jarduerak.
- Banakako tutoretzak: pertsonari formakuntza eta enpleguaren edozein alderekin erlazioatutako informazioa errezteko helburua duten banakako jarduerak ere garatu daitezke. Argibide-eskareak honako gaietara buruz izan daitezke: lan bilaketarako tresnak, aukeraketa prozesuei buruzko alderdi espezifikoak, formakuntza, lanbide kualifikazioak, lan merkaturatzea, enpresak, irtenbide profesionalak, enplegu zerbitzuak...

**Hitzaldiak eta tailerrak: Taldean garatzen diren jarduerak dira. Prozesuan parte hartzen dutenek lan bilaketa prozesurako eta lan merkaturatzea errezteko dieten gaitasunak garatzeko motibazio plusa jasotzen dute.**

Normalean jarduera hauek banakako lanbide orientazio prozesuen osagarri moduan programatzen dira, naiz eta antzemandako beharren arabera guk geuk antolatuta ditzakegun edo beste erankunde, elkarte, institutu, etab...ekin elkarlanean.

Talde jardueretan edukiak, iraupena, saio kopurua eta metodologia askotarikoak izan daitezke, eta kasu bakoitzean zuzenduta dauden gizataldearen beharretara daude egokituak.

Saio/tailerretan eman ditzakegun gaitegi desberdinen artean, honako hauek nabarmentzen ditugu: enplegurako gaitasun digitala, gizarte partaidetzarako gaitasun digitala, trebetasun eta gaitasun sozialak, aukeraketa prozesuetan parte hartzeko proben prestatzea, autoenplegua eta enpresa-sorkuntza, lan merkatuari buruzko informazioa, lan bilaketarako baliabideak, Lanbide Kualifikazio eta Profesionaltasun Zertifikatuen Sistema Nazionala, etab.

## Sarbide baldintzak

---

Nafar Lansarek diruz lagundutako zerbitzua da eta Nafar Lansareko Agentzietan erregistratuak dauden langabetu zein lan hobekuntza egoeran dauden pertsona guztiei dago zuzendua.

## Sail arduraduna

---

Enplegua eta Berrikuntza.

## **2. Lan Poltsa**

### **Zerbitzuaren deskribapena**

---

Langabezian edo lan hobekuntza egoeran dauden pertsonentzako zerbitzu irekia, beraien profil eta interes profesionaletara egokitzen direnean enpresekin kudeatzen ditugun aukeraketa prozesuetan parte hartu nahi dutenean.

Lan poltsan izena ematea enplegu arloan espezializatutako teknikari batekin elkarrizketa personal baten bitartez egingo da, non erabiltzailearen lanerako profila eta helburuak zehaztuko diren. Behin lan eskaintza jasota, enpresak eskatutako profilarekin bat datozenen hautagaitzak aurkeztu aurretik, hauek lan eskaintzaren baldintza eta ezaugarriei buruz informatuak izanen dira, aukeraketa prozesuan parte hartzeko interesa baieztatzeko helburuarekin.

Foremek prozesuan zehar konfidentzialtasun osoa eta datu pertsonalen babesari buruzko legea betetzen duela zihurtatzen du.

Foremek lan eskaintzaren jarraipena egiten du aurkeztutako hautagaiei prozeduraz eta emaitzaz jakinarazi ahal izateko.

### **Sarbide baldintzak**

---

Nafar Lansarek diruz lagundutako zerbitzua da, eta Nafar Lansareko Agentzietan erregistratuak dauden langabetu zein lan hobekuntza egoeran dauden pertsona guztiei dago zuzendua.

### **Sail arduraduna**

---

Enplegua eta Berrikuntza.

## **3. Autoenplegua. Enpresa-sorkuntza proiektuetarako aholkularitza zerbitzua**

### **Zerbitzuaren deskribapena**

---

Enpresa-sorkuntza proiektuetan laguntza eta aholkularitza eskaini. Enpresa-sorkuntza proiektuen sorrera eta martxan jartze prozesuan informazioa, laguntza eta aholkularitza biltzen ditu.

### **Informazio zerbitzua**

---

Autoenpleguak berekin dakarren abantaila eta erantzukizunei buruz, merkatu-hobi eta negozio aukerei buruz, proiektuak abiaratzeko egin beharreko izapideak, hartu daitezken forma juridiko desberdinak eta bakoitzak dituen abantaila eta eragozpenak, enpresa-sortzaileak jaso ditzaketen laguntza eta dirulaguntzei buruz.

### **Aholkularitza zerbitzua**

---

Enpresa-sortzaileei aholkularitza integrala eskaintzen saiatzen da zerbitzua: motibazio eta enpresa-sortzaile profilen analisiak egin, negozio ideari nola forma eman eta zehaztu, zure proiektuetarako aukera desberdinak eta irtenbide egokienak, lan merkatuaren azterketarako funtzesko aldeak, produktu edota zerbitzua hobeto saltzeko marketing estrategiak, ekin behar zaion negozioaren irekiera (negozioa irekitzeko egin beharreko izapideak eta/edo jarduera eskualdatzei buruz) eta sozietate modalitatea aukeratzeko egokitutako aholkularitza. Honek, eskualdatze kasuetan lege balorazioari buruzko informazioa barne hartzen du.

Hala ere plangintza ekonomiko-finantzarioaren azterketa egiten dugu eta proiektuak eskatzen dituzten inbertsioen finantzaketa aukera desberdinei buruzko informazioa eskaini (finantzaketa bide desberdinak eta negozio bakoitzarekiko bide aproposenaren aholkularitza), proiektuarekin erlazionatutako zalantza fiskal, laborar edo juridikoen ebazpena, alegia zerga-betekizunak, kontratu ereduak, behar den kasuetan langile kontratazioarako diru laguntzak eta sustapenak, fakturatzeko jarraibideak, langile kontratazio kostua eta betekizun laboralak. Hala ere TRADE (langile autonomia ekonomikoki dependientea) forma eta bere berezitasunei buruzko aholkularitza espezializatua barne hartzen dugu.

Zerbitzuak, elkartean (irabazi asmoarekin eta irabazi asmorik gabekoak) sorkuntzarako laguntza eta aholkularitza eskaintzen du, baita lehiaketa publikoetan parte hartu nahi duten ekintzaileei deialdia egiten duen administrazioak argitaratutako baldintza-agiriaren arabera eskaintza prestatzeko laguntza ere.

Jakinaren gainean gaude, aholkularitza integralak zailtasun ugari dituela, horrexegatik, zerbitzuak, alde batetik, Nafarroan dauden baliabide espezializatueta bideratzea barne hartzen du, eta bestetik, enpresa-sorkuntzaren gaiaren inguruan gaurkotze jarraia eta berrien jakinarazpena (berriak, laguntzak eta intereseko legegintza, etab.)

### **Konpromezua**

---

Proiektuaren garapenean zehar laguntza eta tutoretza.

### **Sarbide baldintzak**

---

Nafar Lansarek diruz lagundutako zerbitzua da, eta Nafar Lansareko Agentzietan izen emanda dauden langabetu zein lan hobekuntza egoeran dauden pertsona guztiei dago zuzendua.

### **Sail arduraduna**

---

Enplegua eta Berrikuntza.

## **4. Lanbide Kualifikazioei eta lan esperientziaren akreditazioari buruzko informazioa**

### **Zerbitzuaren deskribapena**

---

Lanbide Kualifikazioen Sistema Nazionalaren akreditazio ofizial bat eskuratu nahi duten pertsonen zuzenduriko informazio eta aholkularitza jarduerak, bai formakuntzaren bidetik zein lan esperientzia frogatzeko luzatzen diren deialdietan parte hartzeko.

Hauek dira, beste batzuen artean, zerbitzu honetan eskaintzen diren jarduerak:

- Lanbide konpetentziak frogatzeko prozesuetan eta ziurtagiri ofizial bat eskuratzeko formakuntza prozesuetan parte hartzeko motibazioa.
- Lanbide eta formakuntza liblibidearen azterketa.
- Lanbide gaitasunen identifikazioa.
- Helburu profesionalen definizioa.
- Helburu profesionalarekin elkartutako kualifikazioen identifikazioa (erreferentea)
- Lanbide Kualifikazioen Katalogoan erreferentearen bilaketa.
- Pertsonaren eta kualifikazioaren profil profesionalaren arteko kontrastea.
- Kontrastean aurkitutako landu beharreko gaitasunetan oinarritutako diagnosi-txostena landu.
- Ziurtagiri ofizial bat eskuratzeko helburuarekin, Lanbide Heziketako Titulua edota Profesionaltasun Ziurtagiria, jarduera plana diseinatu.
- Partehartzeile bakoitzari diagnosi-txostena eta jarduera plana eman, eta zalantza eta galdera guztiak argitu.
- Lanbide gaitasunak frogatzeko prozeduran parte hartzeko erabakiaren gaineko informazioa eta aholkularitza.
- Prozeduran izen ematea eta aholkularitza fasea prestatzeko informazioa eta aholkularitza.

### **Sarbide baldintzak**

---

Lanbide Kualifikazioen Sistema Nazionalari lotutako ziurtagiri ofiziala lortzeko interesa duen edozein pertsona.

### **Sail arduraduna**

---

Enplegua eta Berrikuntza.



## **5. Enplegu kluba**

### **Zerbitzuaren deskribapena**

---

Enpleguaren inguruko gaiei buruzko informazio kontsulta, bilaketa eta lanketa gunea da, baita, gure erabiltzaileen heziketarako eta lanbide gaitasunak garatzeko gunea. Ohikoa da bisita hauek tutoretza prozesuaren osagarri izatea.

Guneak enplegu teknikari baten tutoretza eta gainbegiratzea izaten du, modu honetan, enplegu kluba erabiltzen dutenei sortzen zaizkien beharren arabera informazioa eta orientazioa ematen zaie (formakuntza eta enpleguari buruzko informazio espezifikoak, internetaren erabilera, bibliografia eta dokumentaziora sarbidea...)

Hauek dira kontsultarako gune honetan eskaintzen diren zerbitzuak: internetera sarbidea duten lau ordenagailuen erabilera librea, liburutegi zerbitzua eta bertako egunkarien kontsulta, enpresa katalogoa, funtsezko gaitasunak eta aukeraketa prozesuak prestatzeko eskuliburuak, eta enplegua, giza baliabideak, lanbide orientazioa, autoenplegua, aukera berdintasuna etab... eko gaietan liburutegi espezializatua.

### **Sarbide baldintzak**

---

Foremeko Formakuntza eta Enplegu zerbitzuetako erabiltzaileak Enplegu Kluba erabili dezakete irekitze ordutegian, behar duten adina aldiz, bisita kopuru mugarik gabe.

### **Sail arduraduna**

---

Enplegua eta Berrikuntza.

## **6. Lehentasunez langabezian dauden pertsoneri zuzenduriko formakuntza**

### **Zerbitzuaren deskribapena**

---

Lan merkaturatzea eta lanbide desberdinetan kualifikatutako jardueran trebatzeko formakuntza eman. Horretarako, lan-merkaturatzeko prestakuntza-ibilbide integratuak egitea sustatzen dugu.

Ikastaroen programazioen diseinua Nafarroako Foru Komunitatean lehentasunezko sektore ekonomiko eta ekoizpen sektoreak antzemanaz, eta sektore eta esparru horiekin erlazionatutako profesionaltasun ziurtagirien identifikazioa kontutan hartuz egiten da.

### **Sarbide baldintzak**

---

100% diruz lagundua. Lehentasunez langabezian dauden gizataldeei zuzendua.

### **Sail arduraduna**

---

Formakuntza

## **7. Lehenatasunez lanean dauden pertsoneri zuzenduriko enplegurako formakuntza**

### **Zerbitzuaren deskribapena**

---

Sektore arteko formakuntza planen bitartez, eta plan sektorialak, lizitazioak, etab...en bitartez egiten diren formakuntza jarduerak

### **Sarbide baldintzak**

---

okupatuei, lanean dauden langileei zuzendua eta, araudiak hala agintzen duenean, langabezia daduen pertsonak, bere kontura lanean dabilen langileak, Administrazio Publikoko langileak, etab... ere parte hartu dezakete.

Deialdiaren arabera, beste sarbide baldintza batzuk ere ezarri daitezke (Nafarroako enpresa baterako lanean egon, hitzarmen zehatz bat daukan enpresa batean...), eta lehenatasuneko gizataldeak mugatu.

Lehenatasunez lanean dauden pertsoneri zuzenduriko formakuntzaren azken helburua, lan merkatuak erakusten dituen beharretara egokitutako formakuntza eskaintzea da, enpresen produktibitatearen eta lehiakortasunaren eskakizunei eta langileen merkaturatzeko hobekuntza nahiak, promozio profesionala eta norberaren garapena lortzeari erantzunez.

### **Sail arduraduna**

---

Formakuntza.

## **8. Diruz lagundu gabeko formakuntza**

### **Zerbitzuaren deskribapena**

---

Lanbide desberdinetan jarduera kualifikatua eta enplegurako sarbidean trebatzen duen formakuntza.

### **Sarbide baldintzak**

---

Ikastaroaren eta, egotekotan, honi lotutako araudiaren arabera aldatu egindo dira. Formakuntzak kostu ekonomikoa dauka, espezialitatea eta iraupenaren arabera aldatu egiten dena. Langileak besteren kontura lan egiten badu, eta ez badu administrazio publikoan lan egiten, enpresak formakuntzaren kostua hobaritu dezake Hiruko Fundazioaren bitartez. Forem, erakunde antolatzailea den eanean, hobariaren kudeaketa egin dezake.

### **Sail arduraduna**

---

Formakuntza.

## **9. Formakuntza eta enplegu programa mistoak**

### **Zerbitzuaren deskribapena**

---

Lanbide desberdinen jarduera kualifikatua eta enplegurako sarbidea errezuko duten formakuntza, orientazioa eta lan harremanik gabeko praktikak batzen dituzten programak.

Programa honek, gizatalde ahulei zuzenduriko lan merkaturatze programak barne biltzen ditu. Hala ere, formakuntza prozesuak gehitzen ditu non lanbide gaitasunen garapena, lanbide orientazioa eta enpresetan lan harremanik gabeko praktikak elkartzen diren. Programa hau lanbide-orientazioa eta lan merkaturatze ibilbide pertsonalizatuaren bitartez giltzatzen da. Erabiltzaileak, merkaturatzeko balioak izango zaizkion baliabide jakin batzuk eskuratu ahal izango ditu, balioaniztasuna oinarri harturik. Lan bilaketa aktiboan ahalegintzen da baita ere laguntza prozesu iraunkorren bitartez.

Tailer eskolak langabetuei zuzenduriko enplegu eta formakuntza programak dira. Helburua, ikasleak formakuntzaren bitartez gaitzea da, ikasketa eta kualifikazioa enpresetan egingo duten lan produktibo batekin aldizkatuz. Foremek esperientzia zabala dauka praktiken kudeaketan eta enpresa aunitzekin egiten du elkarlana. Enplegu eta formakuntza programa mistoak dira, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak finantzatuak eta Europako Gizarte Funtsak %50an kofinantzatutak. Profesionaltasun ziurtagiri bat eskuratzera bideratuak egon daitezke.

Tailer eskolak bi etapa barne biltzen ditu: etapa formatiboa eta laneko praktikekin aldizkatzen den formakuntza etapa. Azken hiru urteetan, Foremek egin dituen tailer eskolen ikaslearen %90a baino gehiagoko lan merkaturatzea lortu da.

Foremek badu esperientzia Tailer Eskola desberdinen kudeaketan (Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko profesionalak, basoko langileak, Mendeko Pertsonen Arreta Soziosanitarioa, Merkataritza eta Biltegia, Garbiketa)

### **Sarbide baldintzak**

---

Programazioaren arabera aldatu egiten dira. Foremeko edozein egoitzatan edo Webgunean galdetu.

### **Sail arduraduna**

---

Formakuntza eta Enplegua eta Berrikuntza

## **10. Lan harremanik gabeko praktiken kudeaketa**

### **Zerbitzuaren deskribapena**

---

Ikastaroetako ikasleei lan harremanik gabeko praktikak egiteko aukera eman, bai profesionaltasun ziurtagirietako formakuntzan, nola hala eskatzen duen beste edozein formakuntzan (aditu ikastaroak, formakuntza duala...). Praktikak Foremekin elkarlanean haritzen diren enpresen instalazioetan egiten dira, enpresari egokitutako data eta ordutegian, eta beti Foremeko enplegu teknikariek tutoretzatutak.

Enpresekin, elkarlanerako itunak ezartzen dira praktikak gauzatu, kudeatu, koordinatu, eta jarraipena eta ebaluaketa egiteko. Praktiken iraupena aldakorra da, eta erreferentzia alde aurretik ezarriko diren gaitasun eta eduki jakin batzuen lorpena izanen da.

### **Sarbide baldintzak**

---

Berezitasun bakoitzak eta enpresa kolaboratzaileak ezarritakoak.

### **Sail arduraduna**

---

Formakuntza eta Enplegua eta Berrikuntza.

## **11. Langile aukeratze-prozesuak**

### **Zerbitzuaren deskribapena**

---

Foremek, langile aukeraketa eta lan eskaintza kudeaketa zerbitzua eskaintzen du, gure lan poltsan izena ematen duten pertsonak, enpresetan sortu daitezkeen langile beharren arabera, prozesu horietara aurkezteko aukera dutelarik.

Zerbitzu honetan, langile beharraren arabera eta enpresako lanpostu konkretu bakoitzeko hautagai egokiena aukeratzeko helburuarekin lanean diardugu, horretarako, alde aurretik enpresarekin profil profesionala zehazten dugu (gaitasun teknikoak, zeharkakoa, lan esperientzia, hizkuntzak... zehaztuz)

Foremeko langile aukeraketa zerbitzuan hautagaien aurreaukeraketa egiten dugu, enpresek prozesuaren azkeneko erabakia hartu beharra izan dezaten soilik.

### **Sarbide baldintzak**

---

Lan poltsan interesa duen edozein pertsonak eman dezake izena, eta langile aukeraketa zerbitzua Nafarroan kokatutako edozein enpresa edo erakundek eskatu dezake.

### **Sail arduraduna**

---

Berrikuntza eta Enplegua.

## **12. Europar Herrialdeetan lan harremanik gabeko praktikak egiteko ikaslegoaren mugikortasuna**

### **Zerbitzuaren deskribapena**

---

Foremek, Forem Confederaletan eta beste Forem autonomiko batzuekin Erasmus+ programaren barruan mugikortasun egitasmoetan parte hartzen du.

Mugikortasun programak, 45 eguneko iraupena duten lan harremanik gabeko praktika profesionalak eskaintzen ditu, Europar Komunitateko Herrialdeetan kokatutako enpresetan.

Praktikak, lehentasunez, Forem Navarran profesionaltasun ziurtagiri bateko modulo bat edo ziurtagiri oso bat egiten hari diren edo amaitu berri duten gazteei daude zuzenduak.

### **Sarbide baldintzak**

---

Deialdian ezarritakoaz gain, Foremen formakuntza modulo bat edo Profesionaltasun Ziurtagiri oso bat egiten egon, edo berriki bat eginik izan, eta Europar edozein herrialdeetako hizkuntzaren batean erdi-mailako ezgutzak izatea.

### **Sail arduraduna**

---

Formakuntza eta Enplegua eta Berrikuntza.

## **13. Lan arrazoiengatik atzerriratu eta Nafarroara itzuli nahi duten pertsonentzat aholkularitza zerbitzua**

### **Zerbitzuaren deskribapena**

---

Espainiatik kanpo lanean egon eta Nafarroara itzuli nahi duten pertsoneri, lan bilaketarako baliabide desberdinak eskaini, hala nola, langile aukeraketa prozesuei buruzko alde espezifikoak, formakuntza, kualifikazioak, lan merkatua, enpresak, irtenbide profesionalak, enplegu zerbitzuak, autoenplegua, coworking, Nafarroara itzultzeko dauden laguntzei buruzko informazioa, etab...

### **Sarbide baldintzak**

---

Herrialde komunitario edo extrakomunitarioetan lanean egon eta Nafarroara itzuli nahi izatea. Deialdiaren arabera, matrikula kontsularraren erregistroan izena emana izatea edo deialdiaren dataren aurretik bizitzen egon.

### **Sail arduraduna**

---

Formakuntza eta Enplegua eta Berrikuntza.

## **14. Proiektuak**

### **Zerbitzuaren deskribapena**

---

Erabiltzaileei lan merkaturatzeko gaitasunak hobetzen lagunduko dieten programa berriak eskaini.

### **Sarbide baldintzak**

---

Proiektu bakoitzeko deialdian ezarritako betekizunen arabera aldatu egiten dira.

### **Sail arduraduna**

---

Formakuntza eta Enplegua eta Berrikuntza.

ZERBITZU KARTA  
**Enpresa eta  
erakundeei  
zuzenduriko  
zerbitzuak**



## **1. Enpresei zuzenduriko neurriko**

### **Zerbitzuaren deskribapena**

---

Enpresa edo erakundeen eskaerei egokitutako formakuntza jarduerak. Enpresaren benetazko beharrei erantzuteko edozein espezialitate eman dezakegu. Formakuntza enpresarekin batera diseinatu eta planifikatzen da, edukiak, iraupena, datak eta ordutegia beraien beharretara egokituz. Formakuntza Foremen edota enpresan bertan eman daiteke. Erizpide hauen arabera aurrekontu bat egiten da.

Forem enpresa antolatzailea den einean, ikastaro hauen kostuaren hobaria kudeatu dezake, Enplegurako Formakuntzarako Estatuko Fundazioaren bitartez. Kasu honetan, formakuntzaren kostua %10a igoko da (antolakuntza kostuak), kontzeptu hau hobarigarria izanik ere.

### **Sarbide baldintzak**

---

Zerbitzua edozein enpresak erabili dezake. Ikastaro bakoitzeko sarbide baldintza espezifikoak enpresak ezartzen dituzte, araudi espezifikoa daukaten ikastaroen salbuespenarekin; kasu hauetan, enpresari informatu egiten zaio (profesionaltasun ziurtagiriak, agiri profesionalak, etab.)

### **Sail arduraduna**

---

Formakuntza.

## **2. Formakuntzaren hobariaren kudeaketa (enpresak)**

### **Zerbitzuaren deskribapena**

---

Formakuntza baliabide lagungarria da enpresentzat, lehiakortasuna eta produktibitatea areagotzen duen einean, soldatapeko pertsonen gaitasunak eta kualifikazioak garatuz. Horretarako, laguntza ekonomiko bat dute eskura, Sergurtasun Sozialaren kotizazioan hobarien bitartez gauzatzen dena.

Forem Navarra akreditatutako erakunde den einean, hobariaren kudeaketarako gestio guztiak egiten ditu. Kasu honetan, formakuntzaren kostua %10a igotzen da (antolakuntza kostuak), kontzeptu hau hobarigarria izanik ere.

### **Sarbide baldintzak**

---

Estatu lurraldean lan zentruak izan, langileentzat formakuntza garatu, eta Segurtasun Sozialean Lanbide Heziketaren kontingentziagatik kotizatzen duen edozein enpresak izan dezake zerbitzura sarbidea.

Egungo jardueran enpresei zuzenduriko kreditu erabilgarria, bi datutatik abiatuz kalkulatzen da: enpresak aurreko urtean Lanbide Heziketako kontzeptuan kotizatutakoa eta langile kopurua.

Enpresak eskura duten kreditua urtekoa da eta erabiltzen ez bada, galdu egiten da.

Diru laguntza hau formakuntzatik hobaritu daiteken kostuaren deskontua eginez gauzatzen da, hilabetero enpresak gizarte segurantzari egiten dioten kotizazioetatik.

Enpresak antolatutako formakuntzaren hartzaileak: enpresa pribatuetan zerbitzuak eskaintzen dituzten soldatapeko langile guztiak (edota Administrazio publikoen formakuntza itunen ezarpen esparruan sartu gabeko erakunde publikoak) eta Lanbide Heziketa kontzeptuan Gizarte Segurantzari kotizatzen diotenak, hala nola:

Kontratu finko etena duten langileak okupaziorik gabeko denboraldietan.

Formakuntza egiten dauden epean langabezirutzen diren langileak.

Enplegu erregulazioan dauden langileak onartutako espedienteagatik, lan etendura denboraldietan.

Arrazoi ekonomiko, tekniko, antolakuntzakoak edota ekoizpenekoak direla eta, kontratuaren aldi baterako etenaldi neurriez eragindutako langileak, enplegu etenaldi denboraldietan.

### **Sail arduraduna**

---

Formación.

### **3. Diruz lagundu gabeko formakuntza**

#### **Zerbitzuaren deskribapena**

---

Formakunta jarduera irekiak, data eta ordutegiekin planifikatuak, familia eta berezitasun desberdinetan, lanbide desberdinetan kualifikatutako jarduera bermatzen dutenak, arrazoizko salneurrian eta kalitate bermearekin.

Enpresetako langile guztiei aukera ematen die formakuntza espezializatua, ziurtagiriduna jasotzeko, eta lanpostuko betekizunen jardunean daukaten kualifikazioa areagotzeko.

#### **Sarbide baldintzak**

---

Aldatu egindo dira ikastaro mota, eta dagoen kasuetan, haiei lotutako araudiaren arabera. Formakuntzak kostu ekonomikoa dauka, espezialitatea eta formakuntzaren iraupenaren arabera aldatu egingo dana. Ikaslea besteren konturako langilea bada, eta Administrazio publikoan lanik egiten ez badu, bere enpresak Hiruko Fundazioaren bitartez hobaritu dezake formakuntzaren kostua. Foremek, erakunde antolatzaile den eanean, hobariaren kudeaketa egin dezake.

#### **Sail arduraduna**

---

Formakuntza.

## **4. Formakuntza eta enplegu programen kudeaketa eta gauzatzea**

### **Zerbitzuaren deskribapena**

---

Foremek, enpresa, erakunde eta udalen eskura ezartzen du formakuntza, enplegu, kualifikazio eta orientazio profesionalaren arloan programen kudeaketa, gauzatzea eta justifikazioan daukan eskarmentu zabala.

Erakundearekin hitzartutako banakako lan plangintza batetik abiatuz, Foremek gizatalde bakoitzera egokitutako formakuntza eta enpleguaren inguruan mota guztietako irtenbideak eskaintzen ditu.

### **Sarbide baldintzak**

---

Edozein enpresa pribatuk edota giza erakundek eskatu diezaioke proposamen tekniko eta ekonomiko bat zerbitzu honi.

### **Sail arduradunak**

---

Formakuntza, Enplegua eta Berrikuntza.

## **5. Lan eskaintza kudeaketa**

### **Zerbitzuaren deskribapena**

---

Foremek, enpresei zuzenduriko langile aukeratze eta lan eskaintza kudeaketa zerbitzua jartzen du eskura.

Zerbitzu honetan, enpresako lanpostu bakoitzerako hautagai egokiena aukeratzeko helburuarekin jarduten dugu, langile beharraren arabera eta aurretik enpresarekin zehaztutako profil profesional baten arabera (gaitasun teknikoak, generikoak, lan esperientzia, hizkuntzak...).

Aukeratze prozesua eta lan eskaintzen kudeaketaren barruan, ezagutza edo proba profesionalak egiteko aukera ere badago, alegia, proba psikoteknikoak, nortasunari buruzkoak, eta beste hainbat, eskatutako betekizunen arabera.

Foremeko langile aukeraketa zerbitzutik hautagaien aurreaukeraketa egiten dugu, enpresek prozesuaren azkeneko erabakia hartu beharra izan dezaten soilik.

Giza baliabideen inguruko beste erabakirik hartzeko beharra izatekotan, alegia, langileen igoera, lanpostu errotazioak, etab... Foremeko zerbitzuekin elkarlana egin daiteke aholkularitza jasotzeko.

### **Sarbide baldintzak**

---

Nafarroan ezarritako edozein enpresa edo erakundek erabili dezake zerbitzua.

### **Sail arduradunak**

---

Enplegua eta Berrikuntza.

## **6. Enpresetan lan harremanik gabeko praktiken kudeaketa**

### **Zerbitzuaren deskribapena**

---

Forem, profesionaltasun zertifikatu kopuru haundi batean homologatutako zentrua den einean, gure irakasleak hartzeko prest dauden enpresak bilatzen ditu, beraien instalazioetan lan harremanik gabeko praktikak gauzatzeko.

Lan harremanik gabeko praktika hauek profesionaltasun ziurtagirietara edota formakuntza programazio konkretuetara lotzen ohi dira, eta Forem eta interesatutako enpresaren arteko elkar-lan itun baten sinadurarekin dute abiapuntu, praktiken gauzatzea, kudeaketa, koordinazioa, jarraipena eta ebaluaketa burutu ahal izateko.

Praktiketarako ikasleen harrerak ez dakar inolako kontratazio konpromezurik, eta administrazio eskudunak praktiken kudeaketa prozeduratan ezartzen dituen eskakizunen arabera garatzen dira, honek ofizialki aitortu ditzan.

Enpresetan lan harremanik gabeko praktika moduloa, normalean bein ikasleak formakuntza epea probetxuz gainditu eta gero garatzen da.

Naiz eta praktikak epe jakin batean burutu behar diren eta praktiken kudeaketa prozedurak jasotzen dituen muga batzuk kontutan hartu, enpresak dauka ordutegia eta hasiera unearen gaineko erabakia.

Praktika denboraldian ikaslegoa babesten duen aseguru-polizarengan Foremek dauka ardura.

### **Konpromezua**

---

Pertsonen kualifikazioarekiko eta enpresen langileen profesionalizazioarekiko.

### **Sarbide baldintzak**

---

Berezitasun bakoitzak eta praktikak jasotzen dituzten enpresak ezartzen dituztenak.

### **Sail arduraduna**

---

Formakuntza eta Berrikuntza eta Enplegua.

## **7. Enplegu prospekzioa enpresetan**

### **Zerbitzuaren deskribapena**

---

Forem helburu bikoitzarekin jartzen da harremanetan eta bisitatzen ditu enpresak:

- Enpresentzako formakuntza eta enpleguaren arloan aholkularitza eta zerbitzu espezifikoei buruzko informazioa eman eta eskaini: neurrirako formakuntza, formakuntza hobarituaren kudeaketa, lan eskaintzen kudeaketa, lan harremanik gabeko praktiketako ikasleen harrera eta tutoretza, etab...

- Antzemandako formakuntza, enplegu eta akreditazio beharrak jaso eta erregistratu, gure jardueraren diseinuan kontutan hartu, eta gauzatzen dugun formakuntza eskaintza gure enpresa ehundurara ahalik eta modu egokituenean garatu dadin. Halaber, antzemandako kualifikazio beharrak orientazio sailean jasotzen dira, gure enplegu zerbitzura gerturatzen diren lan bila dabiltzan pertsonen lan aukera moduan kontutan izan dezaten.

- Formakuntza eta enplegu gaietan enpresek dituzten behar zehatzei erantzuna eman. Forem eta enpresen arteko harremana bi noranzko prozesua da.

### **Konpromezua**

---

Gure lan merkatuaren errealitatea ezagutzekoa, emakumezko zein gizonezko langileen gaitasunak hobetzekoa, enpresen lehiakortasunaren alde eragitekoa, eta gure Komunitatean langabezian daduen pertsonen kopurua murriztekoa.

### **Sarbide baldintzak**

---

Edozein enpresa edo erakundek eskatu dezake prospekzio bisita.

### **Sail arduraduna**

---

Enplegua eta Berrikuntza.

## 8. Ikasgelen alokairua

### Zerbitzuaren deskribapena

---

Enpresa edo erakundearen beharren arabera hornitutako Ikasgela edota tailerren erreserba. Ikasgela eta tailerren deskribapena webgunean dago eskuragarri.

Alokairuaren kostua ikasgelaren ezaugarrien araberakoa da, aukera hauen artean: arkatz eta paper ikasgela, informatika ikasgela, tailer ikasgela.

Enpresaren eskakizunera egokitutako aurrekontua aurkezten da beti.

### Sarbide baldintzak

---

Edozein enpresak eskatu dezake ikasgelen alokairua. Tailer ikasgelen kasuan aurreikusita dagoen ekipamendu eta instalazioen erabilera aztertuko da, erabilera horren arabera alokatzeko aukera dagoen ala ez balorazioa eginez.

### Sail arduraduna

---

Formakuntza

## 9. Coworking irtenbideak

### Zerbitzuaren deskribapena

---

Lanerako gune baten alokairua orduka, egunka edo hilabeteka, baliabide desberdinez hornitzeko aukerarekin (mahaia, ekipamendu informatikoa, internetera lotura, inprimatzailea, bileratarako gunea, sukaldea-hozkailua-mikrohuina erabiltzeko aukera...)

Foremek, autonomoen lanaren beharrei egokitutako gunea eskaintzen du, zerbitzuak eta ekipamendua partekatu ahal izateko eta gastu finko jakin batzuk merketu, hala ere, isolamendua eragotzi eta lanerako giro atsegin eta emankorra sortu, elkarlana bultzatuz.

### Sarbide baldintzak

---

Zerbitzua beharra duen edozein enpresa, erakunde edota pertsonak eskatu dezake.

### Sail arduraduna

---

Formakuntza eta Enplegua eta Berrikuntza.



## **10. Institutu eta Tailer Eskolekin elkarlana**

### **Zerbitzuaren deskribapena**

---

Gazteen formakuntza eta lanbiderako kualifikazioaren arloan dabiltzan erakundeekin elkarlana egiten du lan merkatuko informazioa, lanbide irteerak, lan bilaketa aktiboa eta aukeratze prozesuen prestaketari buruzko saio praktikoak emanez, haien formakuntza programetan aurreikusitako lanbide orientazioaren osagarri.

Saioen programazioa zentruen beharrak eta Foremeko Enplegu eta Berrikuntza arloko talde teknikoaren disponibilitatea kontutan hartuta egiten da.

Gainera, Foremek LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEENTZAKO LANBIDE ORIENTAZIORAKO gida zentruetako irakaslegoaren eskura jartzen du, saio hauek prestatu eta ikaslegoari emateko.

Elkarlan hauetan, partaideei Foremeko formakuntza eta enplegu zerbitzuak erabiltzeko aukera eskaintzen zaie (lanbide orientazioa, lan poltsan izena ematea, lanbide kualifikazioei buruzko informazioa, formakuntza jarduerak, etab...)

### **Sarbide baldintzak**

---

Lanbide Heziketako Institutuak eta tailer eskolak egiten dituzten erakundeak.

### **Sail arduraduna**

---

Enplegua eta Berrikuntza.

## **11. Lanbide Kualifikazioen Sistema Nazionalari buruzko informazio Zerbitzua**

### **Zerbitzuaren deskribapena**

---

Foremen enpresako langileekin diagnosiak egin ditzakegu, akreditazio deialdiei buruzko informazioa eman, Lanbide Kualifikazioen Sistema Nazionalari lotutako formakuntza beharrak antzeman, sektore eta lanbideen erregulazioa, etab...

### **Sarbide baldintzak**

---

Edozein enpresa mota

### **Sail arduraduna**

---

Enplegua eta Berrikuntza

[www.foremnavarra.org](http://www.foremnavarra.org)



**forem**  
navarra